

gartzela itxeko erabakia hartua dutela». Hori beste berririk ez du eman.

Pozteko da. Bertan gelditzen ziren lau apaizengatik; kobazulo madarikatua ixtean bizitza zerbait arinduko zaielako; horregatik bakarrik.

Ez bait da pozteko beste arrazoinik ageri oraindainokoan.

Izan ere:

Batetik, hainbat kukurrukuren ondoren, garbia zeritzagun gartzela hartako jendea guztia gure artean ikusteari; ez bait dute odol arazorik beren gain;

Bestetik, ez dakigu zein kriterioz jokatuko duten apaiz horien gartzela molde berria erabakitzean: Zamorakoa itxi, eta apaizentzat beste aparteko bat eraikiz gero, ezer gutxi aurreratuko litzateke; dena den, kriterio horren arabera jokatz gero, guztiz normal ikusiko genuke komenturen batetara bidaltzea; baina, amnistiarik ezean, jokamolde jator bakarra, apaiz eta beste, guztiak neurgailu batez beraz neurtzea litzateke.

LIBERAZIO TEOLOGIA ETA NAZIONAL ARAZOA

1973ko maiatzean, lau egunetako sinposiun bat egin zuen hirurogeiren bat teologok, askapen teologiaz eta beltzen teologiaz.

1974ean, Salamancako Ediciones Sigueme delakoak, eta «Teologia negra. Teología de la liberación» tituluaz, publikatu ditu hango ihardunak.

Ez dut lan horiek aztertzeke asmorik. Puntu bakan bat mahain gaineratu, besterik ez: Hugo Assmann-ek eginiko aitorketa dotore bat.

Bere buruari askotan galdetu bide dio honela: zenbateraino da Hego Amerikakoa askapen teologia deritzan hori? Ez ote da, soil-soilik, Hego Amerikan teologia «zuria», «mendebalekoa», modu berrian egiten dela?

Eta aitortzen du, «klase analisi» eskematiko asko dela hori barna, «etni-arraza» problemak kontutan hartu ez duenik.

Horra gakoa.

Baina, halaz guztiz, aitorketa dotorea deritzat horri. Pozik luzatuko nioke bostekoa. Baina zera gertatzen zait: atzera dagidala buruak: ez da aski dasait aitorketa dotorea egitea, egintzak behar dira.

Badakit, orain denboralditxo bat Euskal Herriko «sozialismoaren aldeko

gartzela itxia

ra bururatu zitzaidan eta bururatzen zait: mugimendu horren programa ere gure arteko beste zenbait mugimendu politikorena bezala ote den: behin baina gehiagotan frogatu izan bait dut hau: programan eta paperean abertzaletasunaz egundoko aitortpenak egiten dituztela, eta ez direla gauza paper bat euskaraz emateko; are gutxiago euskaraz pentsatzeko; zer balio du kasu horietan mugimenduaren programaketa euskara batua eta nik dakita beste mila antzeko gauza aipatzeak?

Beste zenbaitek, berriz, gogor eutsiko dio: klase eta nazio arazoak ezin bereiz daitezke. Baina, beren egiazko planteamendutan ez da ikusten nola lotzen dituzten. Hain zuzen ere, eta hain juxtu ere, beren harremanetan, mundu guztiak abertzaletzat dauzkan jendearekin ez, eta espainolizatatzat dauzkanekin agertzen bait dira.

Neure aldetik, Euskal Herriko molde batetako eta bestetako mugimenduei, Hugo Assmann-ek Europako teologoei aipatu sinposiun hartan esaten ziena esango nieke, gure kasura egokituz: euskaraz espresatzeko moduan ez diren bitartean, nekez izan dezakegula komunikatzeko posibilitaterik gure artean. Halaxe esaten bait zien Ass-

-bereak. Gure artean ere, halaxe: euskaraz espresatzeko gauza ez garen bitartean, leze bat da gure artean; ez da komunikaziorako posibilitate handirik; gehienera ere, harmen eta indarrarena (erdara, Euskal Herrian, harma eta indarkeria bihurtu bait zaigu; eta okerre-na da, geure buruaren kontrako harma eta indarkeria dela jakinik ere, horretaz baliatzera beharturik aurkitzen garelako askotan); bistan denez, ordea, komunikazio modu hori oso murriztua izango dugu.

Badakigu, euskara ikasten iharduteko, jendea lanpeturik dabilela; baina ez da hartaraino. Nahi duenak nahi du, eta kito. Jon Urrujulegik oraindik orain zioena esango nuke: eman dezagun, bihar euskal agintariek epe bat ipintzen dietela gure arteko maisuei: bi, hiru urte; dudarik gabe, gaur egun denborarik ez omen dutelarik ere, halako kasuan aisa topatuko lukete.

Horixe da egia, eta beste guztiak komeriak dira.

Eta askapen teologoen artean ere (Hugo Assmann bera lekuko) bada komeriarik asko, eta «sozialismoaren aldeko kristauak» delako mugimenduan ere bai.

Zer esanik ez inolako giza kezkarik gabeko (edo ezer gutxiko) teologia egiten dihardutenen artean. Baina, hau beste kontu bat da.

Bada ez bada diot hori guztia. Ez inor, ez inongo mugimendurik idolatra ez dezagun.

AMUNSA

OHARRA. Zamorako gartzelako apaizak erlijioso-etxetara eramán dituzte

